



Ikasgaiaren programa

MARRAZKETA TEKNIKOA II



IBAZABAL IKASTOLA

2024-25

2BTX

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Sistema diedrikoaren oinarriko transformazioak aplikatzea (plano aldaketa, biraketa, eraispena), prozedura ezberdinak identifikatu eta modu egokian garatuz, hiru dimentsioko errealitatea birsortzeko eta ikuspegi ezberdinetan irudikatzeko.

H2. Geometria deskribatzailearen oinarriak aplikatzea, arrazoibide induktiboak, deduktiboak eta logikoak aplikatuz, soluzioak topatzeko prozedurarik egokiena aukeratuz eta emaitzen interpretazioa eginez, arkitektura eta ingeneritzeko objektu multzo eta egituren problema grafiko-matematikoak ebazteko.

H3. Sistema diedrikoan pieza eta elementu geometrikoak irudikatzeko, UNE eta ISO arauetara jarraituz, hauen forma, dimentsioak eta posizioak bistaratzeko.

H4. Hizkuntza grafikoa eta irudikapen-sistema desberdinekin lotutako hiztegi teknikoak modu egokian eta zorroztasunez erabiltzea, kasu bakoitzerako dagokion adierazpen eta izendapenak erabiliz eta ebazpen prozeduretan, garbitasunaz, zehaztasunez eta argitasunez jokatuz eta tresnen erabilera egokia eginez, ideia edo/eta objektuen izaeraren ulergarritasuna bermatzeko.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

UD1 > Sistema diedrikoaren oinarriak

UD2 > Benetazko magnitudea

- Plano aldaketa
- Biraketa
- Eraispena

UD3 > Elkarguneak

UD4 > Posizioak eta neurriak

UD5 > Normaizazioa

UD6 > Sistema akotatua

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	UNITATE DIDAKTIKOA					
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6
1. Ebaluaketa	■	■				
2. Ebaluaketa		■	■			
3. Ebaluaketa				■	■	■

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Ariketa ezberdinen planteamenduan eta ebazpenean trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Gutxienez, astean behin izango dira eta ikaslearekin batera adostuko da eguna aldeztu aurretik saio horretarako ikasleek materiala prest izan ditzaten.

INTEGRAZIO JARDUERA

Taldeka zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki marrazketak arlo teknikoetan, komunikazio tresna gisa duen balioa aztertu eta ingenieritza edo arkitektura arloan arazoak grafikoki ebazteko teknikak aplikatu eta balioan jartzeko zeregin txikiak landuko dira.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko hiru froga nagusi egongo dira:

AZTERKETAK

Azterketen bitartez unitate didaktiko ezberdinetan landutako edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Azterketetan bereziki USE frogan agertzen diren problemen ebazpena baloratuko da, bai eta ebazpen prozeduran erabilitako prozedura eta zehaztasuna eta zorroztasuna. Azterketetan problemak grafikoki ebazteko gaitasuna eta hau lortzeko planteatzen diren prozedura grafikoak baloratuko dira.

USE TXOSTENAK

USE txostenen bitartez, unitate didaktiko ezberdinetan landutako edukiak landuko dira baita ere. Hauen helburua, prozedura ezberdinetan zein tresen erabileran trebatzea izango da. Modu autonomoan lan egitea, emaitza eta prozeduren zehaztasuna eta txuntasunaren garrantzia bereiztea eta praktikan jartzea baloratuko da. USE txostenetan USEko ariketak agertuko dira, ikasturte osoan zehar froga honetan trebatu eta menperatzeko asmoz.

INTEGRAZIO JARDUERA

integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Marrazketa tekniko hainbat arlotan erabiltzen den komunikazio tresna da. Mekanika, eraikuntza, arkitektura eta hirigintza esparrutako eragile ezberdinen arteko komunikazio tresna da eta horrekin lotuta komunikazio eraginkorrerako arauak eta legeak menperatzea ezinbestekoa da. Erronken bitartez izaera ezberdineko proiektuen ideiak adierazi, dokumentazio grafiko osatu eta honen egokitasuna baloratuko da, batez ere. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izan daitezke.

Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

GELAKO JARDUNA (Jarrera)

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea

- a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaietan Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
- a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
- a. Asistentzia: Ikasgaietan justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegitekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetzak: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA			
ATALA	BALIOA (%)	BALDINTZAK	
Azterketak	70 (60)	Gainditu	Gainditu
USE txostenak	20	Gainditu	
Integrazio Jarduera	0 (10)	Gainditu	
Gelako jarduna	10		

Hiruhileko bakoitza gainditzeko bete beharreko baldintza GUZTIAK hurrengoak dira:

- > Azterketen batz-bestekoa gainditzea (7 puntutik 3,5)
- > USE txostenen batz-bestekoa gainditzea eta txosten guztiak entregatuta izatea. (2 puntutik 1)
- > Integrazio jarduera gainditzea (1 puntutik 0,5)
- > Edukien batz-bestekoa gainditzea (9 puntutik 4,5)
- > Hiruhileko osoaren batz-besteko orokorra gainditzea. (10 puntutik 5)

3. ebaluazioak portaera berezia du. Izan ere, ohiko deialdiarekin batera amaitzen da eta deialdi horretan hainbat aukera posible zabaltzen dira: ordura arteko guztia gaindituta daukaten ikasleentzat (A eta B aukerak) eta atalen bat edo gehiago gainditu gabe duten ikasleentzat (C eta D aukerak).

OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

A AUKERA										
<ul style="list-style-type: none"> • Ordura artekoa gaindituta daukanak: 3. ebaluazioko azterketa egin ahal izango du ohiko dialdian, azken unitateak neurtzeko eta nota osatzeko falta zaion %40a eskuratu. • Kontrol eta azterketen atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (azterketen atalean gutxienez 4 puntu 8tik) • Edukien atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (edukien atalean gutxienez 4,5) eta jarrerarekin batera 5era haldu behar da ikasgaia gainditzeko. • Ikasturteko nota (OHIKOA) hiru ebaluazioen arteko batzbesteko aritmetikoa izango da. 										
1 EBALUAZIOA				2 EBALUAZIOA				3EBALUAZIOA		
TXOST	AZT	INT JAR	JAR	TXOST	AZT	iNT JAR	JAR	TXOST	AZT	JAR
%20	%70 (60)	%0 (10)	%10	%20	%70 (60)	%0 (10)	%10	%20	%70	%10

IKASTURTEKO NOTA: $(1 \text{ ebal}) + (2 \text{ ebal}) + (3 \text{ ebal}) / 3$
(Beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batazbestekoa egiteko)

B AUKERA > USE EREDUA / NOTA HOBETZEKO AUKERA

- Ordura artekoa gaindituta dauzkanak USEko EREDUAN trebatzeko aukera dauka.
- Kasu honetan ohiko deialdian, USEko eredia jarraitzen duen azterketa bat egingo du, ikasturteko eduki guztiak ager daitezkeena (USEko baldintza berberen arabera). Azterketa honen emaitzak, 3. ebaluazioko %70a suposatuko du.
- Kontrol eta azterketen atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (azterketen atalean gutxienez 4 puntu 8tik)
- Edukien atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (edukien atalean gutxienez 4,5) eta jarrerarekin batera 5era haldu behar da ikasgaia gainditzeko.
- Ostean, ikasturteko batazbestekoa aterako da. Batazbesteko hau USEko ereduko azterketatik ateratako notarekin hobetuko da beste puntu bateraino, beti ere USE azterketa horren emaitza 5etik gorakoa bada.

1 EBALUAZIOA				2 EBALUAZIOA				3 EBALUAZIOA		
TXOST	AZT	INT JAR	JAR	TXOST	AZT	INT JAR	JAR	TXOST	USE	JAR
%20	%70 (60)	%0 (10)	%10	%20	%70 (60)	%0 (10)	%10	%20	%70	%10

IKASTURTEKO NOTA: $[(1 \text{ ebal}) + (2 \text{ ebal}) + (3 \text{ ebal}) / 3] + (\text{USE} \times 0,1)$
(Beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batazbestekoa egiteko)

C AUKERA > IKASGAIA ATALKA BERRESKURATZEKO

- Ohiko deialdian, ordura arte **gainditu gabe geratu diren ebaluazioak** berreskuratzeko aukera izango dute ikasleek.
- Berreskuratu beharreko ebaluazio bakoitzeko azterketa bana egin beharko da.
- Ebaluazio bakoitzean Kontrol eta azterketen atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (berreskurapenean atalean gutxienez 4 puntu 8tik). Horretaz gain, ebaluazio bakoitzeko edukien atala gainditu egin behar da (edukietan gutxienez 4,5 puntu 9tik) eta jarrerarekin batera 5era heldu behar da ikasgaia gainditzeko.
- Ikasturteko nota (OHIKOA) hiru ebaluazioen arteko batazbesteko aritmetikoa izango da.

1 EBALUAZIOA			2 EBALUAZIOA			3 EBALUAZIOA	
1 BERRESKURAPENA	INT JAR	JAR	2 BERRESKURAPENA	INT JAR	JAR	3 BERRESKURAPENA	JAR

%90 (80)	%0 (10)	%10	%90(80)	%0 (10)	%10	%90	%10
----------	---------	-----	---------	---------	-----	-----	-----

IKASTURTEKO NOTA: (1 ebal) + (2 ebal) + (3 ebal) / 3

(Ikasgaia berreskuratzeko beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batzbestekoa egiteko)

D AUKERA > IKASGAIA AZTERKETA BAKARRAREN BITARTEZ BERRESKURATZEKO

- Ohiko deialdira gainditu gabeko bi/hiru ebaluazio dituzten ikasleei azterketa bakarraren bitartez ikasgaia gainditzeko aukera izango du.
- Azterketa horretan ikasturte osoko edukiak agertuko dira.
- Azterketa horren pisua ikasturte osoko notaren %75 izango da eta aurretik lortutako 1 ebal, 2 ebal eta 3 ebaluazioko notaren batz bestekoarekin osatuko da.

1 EBALUAZIOA			2 EBALUAZIOA			3EBALUAZIOA		D AUK
AZT	INT JAR	JAR	AZT	INT JAR	JAR	AZT	JAR	AZT
%90 (80)	%0 (10)	%10	%90 (80)	%0 (10)	%10	%90	%10	
EBALUAZIOEN BATEZ BESTEKO NOTA IKASTURTEAREN %25								%75

IKASTURTEKO NOTA:

$$\left[\left(\frac{1eb+2eb+3eb}{3} \right) \cdot 0,25 + D \text{ azterketa} \cdot 0,75 \right]$$

(Ez da derrigorrezkoa ebaluazioak gaindituta izatea)

E AUKERA > NOTA IGOERAK

- Ohiko deialdian, ikasleak nahi duen ebaluazioko nota hobetzeko aukera izango du.
- Ebaluazioak banaka egin daitezke edo, ikasturteko nota osoa hobetzeko azterketa global baten bitartez.
- Azterketa horren pisua dagokion ebaluazioan edukien nota ordezkaturiko du edo azterketa globala den kasuan ikasturteko notaren %90 izanik (beti ere aurretik lortutakoa baino hobea bada).

1 EBALUAZIOA			2 EBALUAZIOA			3EBALUAZIOA	
IGOERA	INT JAR	JAR	IGOERA	INT JAR	JAR	IGOERA	JAR

%90 (80)	%0(10)	%10	%90	%0(10)	%10	%90	%10
E AZTERKETA GLOBALA (%90)							JAR %10
IKASTURTEKO NOTA (ATALKA): (1 ebal) + (2 ebal) + (3 ebal) / 3 IKASTURTEKO NOTA (GLOBALA): (E AZTERKETA) x 0,9 + JARRERA x 0,1							

EZ-OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ez-ohiko deialdian ikasgaia atalka edo azterketa bakarraren bitartez gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berdina jarraituz.

IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturteko nota 3. hiru hileko batez-besteko aritmetikoaren kalkuluaren bitartez egingo da.

USE azterketa eredu aukeratu (B AUKERA) eta hori gainditzen duten ikasleen kasuan, azterketa horretan lortutako notaren %10 gehituko zaio ikasturtearen nota finalari.

Ikasturtea berreskuratzeko azterketa egiten duten ikasleen kasuan bakarrik (D AUKERA), batez-bestekoa horrela kalkulatu da:

$$1+2+3. \text{ hiru hilekoen batez-bestekoa} = \text{Notaren } \%25$$

$$\text{Azterketa globalaren nota} = \text{Notaren } \%75$$

BERRESKURAPENAK

- Hiruhilekoak osorik berreskuratzeko aukera egongo da gorago esandako baldintzetan. Berreskurapenak arratsaldean egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo.
- Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.
- Ez ohiko deialdia izango da pendiente dauden ebaluazioak berreskuratzeko azken aukera.

NOTA IGOERAK

Ikasturtean zehar, ikasgaiko nota hobetzen joateko hainbat aukera egongo dira:

- **Ebaluazio bakoitzean:** Ebaluazio bakoitzeko azterketaren hitzorduan borondatezko galdera gehigarri bat erantzunez. Galdera honen bitartez ideiak elkarrekin harremanetan jarritik zein gaiaren gainean hausnartuz ebaluazioan zehar landutako jakintzak eta konpetentziak barneratu dituela erakutsi beharko du ikasleak. Galdera honen bitartez, ebaluazioko nota hobetu ahalko da puntu bateraino.
- **Ikasturteko nota orokorra:** Ikasgaia gaindituta dutenek, ohiko deialdian nota igotzeko hainbat aukera izango dituzte:
 - USEko eredu jarraitzen duen eta ikasturteko eduki guztiak hartzen dituen azterketa baten bitartez. Azterketa horretako notak, ikastute osoko batazbestekoa hobetu ahalko du puntu bateraino.
edo
 - Atalka ebaluazioen nota hobetzeko azterketaren bitartez.
 - Ikasturteko nota hobetzeko azterketa globalaren bitartez.

HAZIAK > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz.... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzen bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daitezke.

Horretarako ikasleak, txantiloiz/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.

- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.

Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.

USE TXOSTENAK BALORATZEKO ERRUBRIKA					
Ebaluazio Irizpidea	Maila baxua	Maila baxua	Maila ertaina	Maila altua	Maila bikaina
E11> Ebazpenerako prozedura grafikoa /Emaizta <i>Ebazpenerako emandako pausuen osotasuna eta egokitasuna.</i>	Ariketa guztiz egin gabe edo ia erabat egin gabe dago.	Ariketaren emaitza ez da zuzena edo zaila da emaitza bereiztea eta planoan irakurtzea (paralelotasuna eta perpendikularitasuna ere zaindu gabe egon daitezke).. Emaizta lortzeko emandako pausuak ez dira agertzen eta ezin da erabili den prozedura geometrikoa zein den bereizi.	Ariketaren emaitzaren zati bat zuzena da, baina akats garrantzitsuak daude (prozedura orokorra ezin delako ondo bereizi edo puntuen konkordantzia, distantzietan, eskalan, paralelotasun edo perpendikularitasunean akats esanguratsuak daudelako).	Ariketaren emaitza orokorra ona da eta ebazpenerako prozedura modu zuzenean adierazi da baina akatsen bat dago honen adierazpenean (pausuren bat ez delako ondo bereizten edo punturen bat ondo kokatu ez delako...). Paralelotasuna eta perpedikularitasuna ondo zaindu dira eta oro har ariketaren ebazpena egokia da.	Ariketaren emaitza bikaina da. Eskala egokia erabili da eta ebazpenerako prozedura modu zuzenean adierazi da. Marrazkiaren puntu guztien kokapena egokia da (konkordantzia bista guztia betetezen da). Paralelotasuna eta perpendikularitasuna bikain mantentzen da.
E12 > Terminologia eta izendapenak /Normalizazioa	Ez dira beharrezkoak diren puntuak izendatu eta normalizazio arauak ez dira errespetatu (marra jarraiak eta etenak...) (Ariketa egin gabe dago)	Prozeduran beharrezkoak diren puntu eta pausu gutxi batzuk izendatu dira bakarrik edo/eta normalizazio arauak ez dira errespetatu (marra etenak falta dira, ardatzak falta dira...)	Prozeduran beharrezkoak diren puntu eta pausu batzuk bakarrik izendatu dira modu egokian edo/eta normalizazio arauak ez dira guztiz errespetatu (marra etenak falta dira, etenak eta jarraiak nahastu dira, ardatzak falta dira...)	Prozeduran beharrezkoak diren pausu ia gehienak izendapen egokiarekin adierazi dira eta normalizazio arau guztiak errespetatu dira.	Prozeduran beharrezkoak diren puntu eta pausu guztiak izendapen egokiarekin adierazi dira eta normalizazio arau guztiak errespetatu dira (marra jarraiak eta etenak, ardatzak)
E13 > Txukuntasuna eta zehaztasuna	Ariketa ebazterakoan ez da txukuntasunaren eta zehaztasunaren garrantzia landu. Arkatza ez da zorrotasunez erabili, marra ezberdinen izaera eta garrantzia bereiztea zaila da eta papera zikin dago. (Ariketa egin gabe dago)	Arkatzarekin egindako marren lodiera ez da zaindu eta lodiera berdinarekin marratu dira piezren parte diren marrak eta ebazpenerako marra lagungarriak. Arkatza ez da zorrotasun nahikoarekin erabili edo/ eta paperean txukuntasun akats nabarmenak edo zimurrak ikus daitezke.	Arkatzarekin egindako marren lodiera ez da bereziki zaindu eta lodiera antzekoarekin marratu dira piezren parte diren marrak eta ebazpenerako marra lagungarriak. Arkatza ez da zorrotasun nahikoarekin erabili edo/ eta paperean txukuntasun akatsak ikus daitezke.	Arkatzarekin egindako marren lodiera zentzuz ezberdindu dira (emaitza eta prozedura nolabait bereiziz). Papera nahiko garbi dago, arkatza zorrotasunez erabili da eta ez dago arkatz arrasto handirik ezta bestelako zinkinkeririk.	Arkatzarekin egindako marren lodiera modu kritikoan eta bikaintasunez bereizi da (emaitza eta prozedura bereiziz, beharrezkoak ez diren marrak ekidinez..). Papera garbi dago, arkatza zorrotasunez erabili da eta ez dago inolako arkatz arrastorik, bestelako zinkinkeririk ezta beharrezkoak ez diren trazadurarik.
E14> Klaseko denboraren aprobetxamendua	.	Txostena egiteko denbora ez da aprobetxatu (konstantzia gutxirekin aprobetxatu da, lekuz aldatuz, altxatuz, beste ikasgaietako materiala izaneik edo material gabe maiz. .	Txostena egiteko denbora ez da guztiz aprobetxatu (konstantzia gutxirekin aprobetxatu da). Materiala ez du beti prest izan edo faltan izan du batzutan.	Txostena egiteko denbora nahiko modu konstantean aprobetxatu da, autonomiaz lan eginez eta beharrezko materiala prest izanik.	Txostena egiteko klaseko denbora modu bikainean aprobetxatu da, autonomiaz lan eginez, beharrezko materiala prest izanik eta zalantzak argituz.